



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

Telefono komertzial  
eta partikularren gida



2017ko abuztuaren 10a | XXXVII. urtea | 692. zenbakia

## Herrietako bestak

**ARANTZA → 8**  
Besten ondotik, abuztuaren  
19an Arantza Rock

**GOIZUETA → 15**  
Sagardo Eguna  
abuztuaren 16an

**AMAIUR → 19**  
XLII. Artzain Zakur Lehiaketa  
abuztuaren 15ean

**EZKURRA → 21**  
Nafarroako III. mailako  
aizkora txapelketako finala

## 'KARMEN ETXALARKOA' PASTORALA



## Amodioa euskaratik eta euskaran


Ehun lagunetik goiti igoko dira oholtza gainera irailaren 16an eta 17an Etxalarren, Prosper Merimeeren *Carmen* eleberrian oinarritutako *Karmen Etxalarkoa* pastorala eskaintzera. Gerardo Mungiak idatzi du gidoia, eta Pantxika Urruty ari da zuzendari lanetan. Hilabetetako lanaren emaitza izanen da ikusgai, herri osoaren elkarlana, eta bide batez, Karmen berriz ere bere sorterrira bueltan ekarriko duena.

ERREPORTAJEA → 3-5

# GOZATU GUREKIN



**LIDERRAK**  
GURE ESKUALDEAN  
ETA BAITA AZTERKETA EGITERAKOAN  
CIESEK NAFARROA GARAIKO  
MENDIALDEAN  
HARTU DUEN 111 UDALERRIEN  
EREMUAN ERE



- TTIPI-TTAPA
- DIARIO DE NAVARRA
- DIARIO DE NOTICIAS
- GARA
- 7 HAIZETARA
- GAUR 8
- BERRIA
- ARGIA
- BESTE BATZUK

- 26.000 IRAKURLE
- 14.000 IRAKURLE
- 12.000 IRAKURLE
- 7.000 IRAKURLE
- 6.000 IRAKURLE
- 4.000 IRAKURLE
- 3.000 IRAKURLE
- 1.000 IRAKURLE
- 6.000 IRAKURLE

**TTIPI-TTAPAREKIN**  
ZURE IRAGARKIAK ERAGIN  
HAUNDIAGOA DU



**SEXUAREN ARABERA**

GIZONAK %52,70  
EMAKUMEAK %47,30

**ADINAREN ARABERA**

14-24 URTE %12,20  
25-34 URTE %08,00  
35-44 URTE %21,60  
45-54 URTE %30,00  
55-64 URTE %13,80  
+64 URTE %14,40

**IKASKETA MAILAREN ARABERA**

IKASKETARIK GABE %28,60  
DINARRIZKO BATXILERGOA %17,00  
GOI MAILAKO BATXILERGOA %21,70  
UNIBERTSITATEA %32,70

DATU ITURRIA: CIES, 2017KO LEHENENGO NEURKETA



Pastoralean taula gainean ariko diren arizaleak, zuzendaria eta obraren idazlea.

KULTURA → PASTORALA

# Karmen Etxalarkoa sorterrira dator bueltan

Irailaren 16 eta 17an eskainiko dute pastorala

Ehun lagundik goiti igoko dira oholtza gainera, Prosper Merimeeren *Carmen* nobelan oinarritutako *Karmen Etxalarkoa* pastorala eskaintzera. Gerardo Mungiak idatzi du gidoia eta

Pantxika Urruty ari da zuzendari lanetan. Hilabetetako lanaren emaitza izanen da ikusgai. Herri osoaren elkarlana izanen da, Karmen berriro ere Etxalarrera bueltan ekarriko duena.

## Eneritz IRAOLA

Guti ziren Etxalarren Karmenen berri zutenak. Are gutiago pastoral bat zer zen ongi azaltzeko gai zirenak. Baina erronkari baietz erranziotenetik, ongierratu dira Karmen Etxalarkoaren istorioa eta pastorala herrian.

Gerardo Mungiak, *Karmen Etxalarkoa* pastorala sortu zuenean, Karmen protagonistaren jatorrizko herrian obragaratzea ideia ona

izan zitekeela pentsatu zuen. Orduan egin zion eskaintza Etxalarko herriari eta hasierako zailtasunak gaindituta, etxalartarrak animatu egin ziren. Pantxika Urruty pastoral zuzendaria gidari zutela abentura handi honi eman zioten hasiera.

## ILUSIOA LEHENGAI

Pantxika Urrutyk azaldu duenez, lehen-dabiziko lana etxalartarrei pastoral bat zer

den azaltzea izan zen: «Antzinako antzezlan mota bat da, Zuberoan arras ezaguna dena. Kantuak, musikak, dantzak bat egiten dute bertan...». Hutsetik hasi baziren ere, «gaur egun usate dut herrian pastoral hitza sartu dela eta arizale guztiek eta baita ondoan diren guztiek ere badakite pastoralak zer nahi duen erran». Eta ez hori bakarrik, Gerardo Mungiak gaineratu duenez, zeresana ere

ematen ari da Karmenen istorioa: «herritarren artean galderak ari dira sortzen. Ea Karmen benetan Etxalarren jaio eta obran ageri den bezala buhameek Andaluziara eraman zuten. Guztia Jose engainatzeko Karmenek asmatutako gezur bat ote zen. Prosper Merimeek eleberria idatzi zuenean benetako istorio bat konstatu ote zuen... horren guztiaren inguruan bada argitu gabeko misterio bat».

## ETXALAR ETA BAZTAN ELKARLANEAN

Gerardok, Karmen Etxalarkoa pastorala egiteko orduan protagonistaren jatorria kontuan eduki zuen, eta egokia ikusi zuen obraren bertze protagonista baztandarra izanik, baztandar batek betetzea paper hori. Joseren papera egiten zuenaren bila hasi zen obraren egilea eta azkenean Miel Joxe Ariztia baztandarra izan zen Joseren papera betetzeko aukeratua eta Karmenen papera betetze-



ZUZENDARIA

«Pastoralak badu bertze funtzio bat, herria elkartzea eta elkarlaren baten egitea. Lan kolektibo erraldoia ari da sortzen».

## Pantxika URRUTY



OBAREN IDAZLEA

«Karmen eta Joseren arteko amodioa euskaratik eta euskaratik izan zen: euskara izan baitzen haien arteko ezagutza bidea».

Gerardo Mungia



JOSE

«Ahotsaren bidez behar duzu zure momentu horretako emozioak adierazten asmatu. Doinua hartu eta boza haserre, triste, alai... jarri».

**Migel Jose ARIZTIA**

ko Miren Olaetxea Etxalartarra. Honekin eta Amaiurko Gaztelu abesbatzaren parte-hartzearekin Etxalar eta Baztan ere lotzea lortu du pastoralak.

#### PASTORAL KLASIKO BATEN EGITURA

Ohiko egitura duen pastoralak da Karmen Etxalarkoa. Kasu honetan, baina, pertsonaia historikoa izan beharrean, fikziozko pertsonaia da pastoralari haria emanen diona, «ez dugu momentuz Karmen Etxalarkoari buruzko erreferentzia historiko zehatzik topatu». Hego Euskal Herrian eginen den mota honetako bigarren ikuskizuna izanen da Etxalarkoa eta euskara hutsean eskainiko dute, obraren jarraipena egiteko liburuxkak gaztelaniaz eta frantsesez ere egon diren obraren. Obraren egilearentzat garrantzitsua da pastoralak euskaraz izatea «orain artean *Carmen* eleberrian oinarrituta egin izan diren emanaldi eta opera guztiak ez dute hizkuntza kontuan hartu. Karmen eta Joseren arteko maitasun istorioa euskaratik eta euskaratik izan zen:

euskara izan baitzen haien arteko ezagutza bidea. Beharrezko zen euskarari dagokion garrantzia ematea».

#### AMODIO TRAGIKOA

Karmen eta Joseren arteko erlazioa da pastoralaren oinarria. Karmenen nortasun gogorra, Jose jeloskorren noraeza... sentimendu aunitz nahasten dira pastoralan: «Jose baztandarra da eta hasieran militar ohi bezala agertzen bada ere, azkenean desertore eta hiltzaile bihurtzen da.

#### SEI ARIZALE TALDE OHOLTZAN

Karmen eta Joseren batera, sei arizale edo pertsonaia talde ariko dira oholtza gainean: dragoiak edo soldaduak; buhameak, zigarrreta-egileak; kontrabandistak, bidelapurak edo trabukoak; turkandereak edo ostalersak, emakume andaluziar atrebituak; eta fraileak. Arizale zerrenda luzea da eta horiek antzezteko ia herri osoaren be-

bertze funtzio bat, herria elkartzea eta elkarlan baten egitea. Lan kolektibo erraldoia ari da sortzen». Orain artean egin dituzten entsegu edo mustraka orokorretan nabari du hori: «herri hau harrotzen ari da. Giro berezia sortu da. Une hunkigarriak, indartsuak bizi izan ditugu eta segur naiz emaitza ikusgarri eder bat izanen dela».

#### DANTZEN GARRANTZIA

Dantzek ere garrantzia handia izanen dute pastoralan.



Karmen, berriz, Etxalarren sortua da; emakume ederra, bohemioa, ijitoa eta bere askatasuna eta independentzia denen gainetik defendatzen dituen. Sentimendu horiek guztiak nola azaldu ikastea izan da protagonisten ustez lanik nekezena: «pastoraletan sentimenduak ez dira ohiko antzerkietan bezala adierazten, keinuek, mugimenduak ez dute indarrik. Emozio horiek guztiak ahotsaren bidez soilik adierazten ikasibehar izan dugu. Hase-rea, maitasuna, poza, esperantza...».

harra izan dute: «haur, gazte, helduak... aurrez esperientzia zutenak eta sekula antzeko ezertan aritu ez direnak... denak bildu ditu pastoralak».

Oholtza gainean ariko direnez gain, itzalean lanean aritu direnak ere azpimarratu nahi izan ditu Pantxikak: «jostunak, makila egileak, sukaldariak, komunikazio eta publizitateaz arduratu direnak... jende anitzek lan handia egin du». Argi du pastoralaren zuzendariak: «pastoralak badu

Satanen eta enparauen dantzak egiteaz arduratuko dira Etxalarko Andre Mari dantza-taldeko ki-deak. Amadeo Arretxeak zuzendu ditu dantzariak, eta Zuberoatik etorritako hainbat dantzari ere izan dituzte irakasle lanetan. Horretaz gain, pastoralerako espreski zenbait pieza ere sortu ditu Amadeok: «pastoralean ageri diren emakume zigarreregileen dantza, buhameen dantza, Karmenen dantza, eta amaieran Karmenen omenez dantzari guztiak eginen dutena».

#### ZUZENEN MUSIKA

Arizaleek abestuko dituzten bertset edo koplekin batera, zuzeneko musikak ere indar handia emanen dio obrari. Musika Javier Perez de Azpeitiak eta Rene Beldak sortu dute, eta Amaiurko abesbatzak ere parte hartuko du, Etxalarko txistulariekin eta hainbat musikarirekin batera.

#### EMANALDIA IRAILAREN 16 ETA 17AN

Pastorala irailaren 16 eta 17an izanen da ikuskizuna, Etxalarko frontoian 15:30etik aitzinera. Igan-dean 11:00etatik aitzinera pastoralaren parte hartuko duten arizale guztiak herriari itzulia emanen diote musikariez lagunduta. Ikuskitzuna egunetan, hainbat zerbitzu ere eskainiko dituzte: bertako produktuen azoka eta jan eta edateko aukera ere izanen da propio egun horietarako antolatuko duten ostatuan. Sarrerak 15 euroren truke eskuratu daitezke online edo salmenta puntuetan. Xehetasunen guztien berri [karmenetxalarkoa.eus](http://karmenetxalarkoa.eus) helbidean emanen dute datozen asteetan.



KARMEN

«Batzuetan ardura sentitzen dut, zirrara bertzetan... kontent naiz abentura honetan sartu izanaz! Eronka handia izan da niretzat».

**Miren OLAETXEA**

# Pastorala osatzen dutenei galdezka


## «Zertan parte hartuko duzu?»



JENDEA BILATZEA

«Partaideak bilatzea zen nire lehenbiziko lana. Baina lan franko dago eta ahal dugun neurrian denon artean aitzinera goaz poliki poliki».

Mireia MARTINEZ



OTORDUAK

«Elkarlanean sei bat lagun aritzen gara otorduak antolatzen, eta egunean berean, 30 bat bilduko gara, giro ederrean, kantak... badirelarik».

Jasone MITXELTORENA



JANTZIAK

«Arizale guztien jantziak pentsatu, bildu eta konpontzen ditugu. Emakume talde ederra ari gara eta arropak utzi dizkigutenak ere ausarki dira».

Andrea ELIZALDE



ARIZALEA

«79 urte ditut eta egundaino ez naiz aritu izan aktore lanetan. Arizale nagusienetakoa naiz eta auzokide paperean eta kantuan ere ariko naiz».

Virginia ARBURUA



SPONSORRAK

«Ilusio eta borondate handiarekin ari gara lanean baina dirua ere behar da eta laguntzaileak bilatzea da gure taldearen ardura».

Onintze ZINKUNEGI



MAKILA EGILEA

«Pastoralaren egunean erabiltzeko 122 makila egin ditut. Urritza menditik bildu, zuritu, idortu, pintatu, apaindu... lan polita dute».

Benantxio ARBURUA



FINANTZIAZIOA

«30.000 eurotan hasi zen proiektua zabaltzen joan da eta ezinbertzekoa izan da finantziazioa lortzea, hainbat diru-laguntzei esker lortu dugu».

Miguel Mari IRIGOIEN



SARE SOZIALAK

«Sare sozialetan informazioa abudo zabaltzeaz arduratzen naiz. Argazkien, bideoen... bidez jendeak egiten ari garenaren berri izan dezan».

Aimar IPARRAGIRRE



ARIZALEA

«Ni izanen naiz arizale gazteenetakoa. Hamar urte ditut eta haurren taldean ariko naiz dantzari eta kantari. Denera 20 haur inguru ari gara».

Ane ARBURUA



KOMUNIKAZIOA

«Komunikazio taldean aritzen naiz eta web orria elikatzea da nire ardura nagusia, diseinu lanak koordinatzearekin batera».

Javier IRIARTE



MAKILA EGILEA

«Otsailean hasi nintzen makilak egiten eta 100 inguru egin nituen. Urritz makilak dira eta entseguetarako erabili dituzte nik egindakoak».

Joxe Mari ELIZAGOIEN



MUSIKA

«Emanaldi luzea da eta kanta aunitz prestatu behar izan ditugu. Xuberoko doinuak, Baztangoak... 12 musikari ari gara».

Iñigo ETXARTE



DANTZA TALDEA

«Dantzetako arduradunak gara. Dantzariak bilatzea izan zen lehenbiziko eginbeharra eta gero dantzak, entsaioak eta dantzari taldeak antolatzea. Baita, dantza irakasle eta pastoreko zuzendariarekin koordinatzea ere... dantzetan aritzen diren guztien arteko zubi-lana egiten dugu».

Anabel ARBURUA eta Maite OLAETXEA

**Nire txanda**

Jon ABRIL

**Harri koxkorra**

Jakiteak, berez, ez dakar erabiltzea. Horixe utzi du agerian karrikan egiten den euskararen erabileraren Euskal Herriko azterketak. Alegia, gero eta jende gehiagok dakiela euskara, baina erabilerak ez duela goiti egiten erritmo berean. Eta kezkarriagoa dena: zenbait tokitan erabileraren beheiti joan da. Nafarroako datuetan goitirako joera ikusten da, motel baina goiti. Gure herrieta-ko datu xeheaturik ez da zabaldu, baina joerak ikusirik, ez dut uste arrunt diferenteak izanen direnik.

Anitz egin dugu euskararen alde, euskararen zabalduerako, transmisiorako eta ezagutza bermatzeko. Eta hala ere, ez da aski. Erdarag nagusi izaten segitzen du (gu arnaguneetan bizi gara, eta hobekixeago gaude, baina gorde suziriak herriko bestetarako!). Gehiagoren beharrea gara, baina ez dugu sasoi bateko indar eta kemenik. Anitzek, beharrik ere ez dute ikusten, *naturalki* datozelako euskaldunak, edo *dena egina* dagoelakoan. Atx! Harri koxkor bat dugu zapatan, baina oinez segi nahi dugu. Akaso, zapatak aldatzeko tenorea ere bada.

**Ezpala**

Aitor AROTZENA

**Agorrileko agortera agortuak**

Urte erdia baino gehiago joan zaigu, uda erditsua ere, eguneroko lanari bestaz besta ibiltzearen nekea pilatzen zaio eta ideia agortea sumatzen hasiak gara agorrilean. Berriak ere agortuak, Frantziako Tourra bukatuta, Venezuelatik Kataluniara sigi-saga doa udako albisteen sugetzara. Buruilean altxatuko al dugu burua, egin beharreko buruketa guztiak burutzeko!

**Nabarmentzekoak****Mikel TABERNA**  
'Harritik hazia' antzezlanaren

Alkaiagako idazleak idatzitako testuan oinarrituta, memoria historikoari buruzko *Harritik hazia* antzezlanaren taularatu dute hiru egunez Berako Kultur Etxean, arrakasta handiarekin.

**Diana INIESTA**  
Margolanak Erratzun ikusgai

Negu partean New Yorken egindako margolanen erakusketa egiten du abuztuaren 7tik 31ra Erratzuko labadearoan. Hilaren 11n, 18:30ean izanen da inaugurazio-ekitaldia.

**Bakartxo ANIZ**  
Argazki erakusketa Areson

Abuztuan dena ez da pesta eta Aresoko Alkozko bordan bizi den argazkilararen erakusketa ikusgai izanen da Aresoko pestetan Udaletxean. Liburu ere argitaratu du aurten Anizek.

**Atzera begira → 1997-IX-11 • TTIPI-TTAPA 213 zk.****Jone eta Joxe Mari Elgorriaga lesakarrak Nafarroako txapelak**

Duela hogeitaz urte, 1997ko abuztuaren 24an jokatu zen Lakuntzan Nafarroako Trikitilarien laugarren txapelketa. Argazkian agerienez, eskualdeko ordezkari-za zabala izan zen eta horien artean, Joxe Mari eta Jone Elgorriaga Lesakako anai-arrebak suertatu ziren txapelak. Bigarren postua Leitzako Nerea Erbitik eta Melani Eskuderok, hirugarrena Berako Joseba eta Amaia Irastorza anai-arrebek, laugarrena Lesakako Oihana Almandoz eta Etxalarko Nagore Ansalasek, bosgarrena Arantzako Olatz Irigoien eta Leire Amorosek, seigarrena Goizuetako Patxi eta Irune Zabala anai-arrebek, zazpigarrena Lesakako Nekane Etxandik eta Etxalarko Jasone Mitxelorenak eta zortzigarrena Berako Josune Pikabeak eta Julen Zelaietak. Hogeitaz urte beranduago trikitixa eta panderoekin segitzen dute batzuk eta bertze arloetan ezagun dira bertze batzuk.



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemak** Juana Mari Saizar, Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerdian, Martin Bertiz, Martin Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

**2017ko harpidetza sariak**

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€



Bortzietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



# ZUBIETA KO FIESTAK

ABUZTUAREN 14TIK 18RA



## ABUZTUAK 14, ASTELEHENA

**20:00** Herriko txistulariak. **Ondotik** herriko trikitilariak. **21:30** Zopa Handiak Herriko Ostatuan eta Errandonean. **00:00** Arbola altxatzea eta Joaldunak. **Ondotik**, dantzaldia Fan&Go taldearekin.

## ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

**08:00** Diana. **11:00** Meza nagusia. **Ondotik**, txistulariak, joaldunak, herriko erraldoiak eta buruhaundiak. **12:30** 85 urteko herritarrei omenaldia, herriak eskainia. **13:00** Aizkora apustua: Palaxio eta R. Saralegi, P. Mindegia eta M.Mindegiaren aurka. **17:30** Ortzadar dantza taldearen emanaldia. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia Oharkabe taldearekin.



## ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA

**08:00** Diana. **10:30** Herri kroserako izen-ematea. **11:00** Herri Krosa. **12:30** Pilota partidak: Mattin Agesta eta Aitor Agesta, Endika Santesteban eta Oihan Sarratearen aurka. Xuban Ilarregi eta Julen Santesteban, Mikel Mikelarena eta Patxi Loiarteren aurka. **16:00** Mus txapelketa herriko ostatuan. **17:00** Patata tortilla lehiaketa plazan. **17:30** Postre lehiaketa (etxean eginda ekarri behar da). **Ondoren**, berendua. **18:30** Patata tortilla eta poste lehiaketaren sari-banaketa. **Ondoren**, Muxikoak plazan. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia Joxe Angel soinuariarekin.



## ABUZTUAK 17, OSTEGUNA

**08:00** Diana. **11:00** Haurrentzako herri-kirolak eta betiko jokoak. **Goizean** buruhaundiak herrian barrena ibiliko dira. **Eguerdian** haurrentzako bazkaria. **16:30** Jokulandia. **17:30** Plater tiroketa. **18:30** Haurrendako berendua. **19:00** Zumba. **Arratsaldez eta gauzez** Hauspolariak taldearekin dantzaldia.

## ABUZTUAK 18, OSTIRALA

**08:00** Diana. **11:00** Haurren pilota partidak. **12:00** Helduen pala txapelketako finala. **14:30** Bertso bazkaria, Mendiluze eta Sarriegirekin. **16:00** Haurrentzako futbitoia. **17:30** Haurren pala txapelketako finala. **21:00** Zingar jatea estalpean (txartelak 4 euro) **Arratsaldez eta gauzez** Dantzaldia Holako musika taldearekin. **02:30** Arbola botatzea beste bukaera emanaz.

616 513 497

**Pitti**

**ESKABAZIOAK**

ONGI PASA BESTAK!

**ESKABAZIO eta GARRAIO LANAK**

Tf 948 451 389  
Ezpelura, 1 · DONEZTEBE  
pittieskabazioak@hotmail.com

**ZUBIETAKO HERRIKO OSTATUA**

Fiesta zoriontsuak denoi!

PINTOXAK | BOKATAK | BAZKARIAK | AFARIAK

T. 948 920 948 · ZUBIETA

**MADERAS SANTESTEBAN** ONGI PASA BESTAK!

Mendi lanak (Pinuak erosten dira)  
Bigak · Montaje obran  
Teilaturako egiturak  
Izei, haritz eta douglasezkoak edo laminatua  
Osagarriak · Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77  
info@maderasantesteban.com

ELEGANTE PASA FIESTAK!

948 450 286

**ARRATE ETETIKA ZENTROA**

euskaraz  
bizi  
nahi dut

JAIETAN HERRIKO MATXISTA DEKORAZIOA  
**EZ**

Zubietako Udalak  
besta zoriontsuak opa dizkizue  
zubietar eta bisitari gutzietei

ongi pasa bestak!



**aterpe**  
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA | [www.arantza.net](http://www.arantza.net)

**PABLOENEA** ONGI PASA BESTAK!

KARTA | MENUA | PLATER KONBINATUAK  
BOKADILLOAK | HANBURGESAK | ETXERKO POSTREAK



[www.pabloenea.com](http://www.pabloenea.com)  
Goiko kalea, 5 • ARANTZA • 948 634 077

*Restatua-jatetxea*



**Burlada**

BOKATAK - PLATER KONBINATUAK - KARTA - MENUA

T. 948 63 40 27 - 679 316 988 | ARANTZA  
[www.restauranteburlada.com](http://www.restauranteburlada.com)

**PRIMI** Ongi pasa bestak!

ostatua



Goiko karrika, 7 • ARANTZA • T. 948 634 052

ongi pasa bestak!!

Gasa Ura Kalefakzioa

**froling**

Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA  
686 23 52 30  
[patximutu@hotmail.com](mailto:patximutu@hotmail.com)

ERAKUSKETA:  
Bidasoa, 45 - BERA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA

**Bidasoa** GASOLINDEGIA

**24** ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693

**ilargi** okindegia



ongi pasa bestak!



Enkarguak 948 634 156 • ARANTZA

# ARANTZAKO BESTAK

ABUZTUAREN 14TIK 17RA



## ABUZTUAK 14, ASTELEHENA

**12:00** Altxaferoa Herriko Etxetik. **Ondotik**, kalejira elektrotxaranga eta herriko musikariek. **Segidan** herriko dantzari gaztetxoaren saioa. **14:30** Herri bazkaria. **17:00** Haurrentzat jokoak, Irrisari Landen eskutik. **18:00** Entzierro ttikia. **20:00** Txamukos mariatxi taldearen emanaldia. **00:00** Dantzaldia Beñat eta Fernandorekin.



## ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

**10:00** Diana herriko musikariek. **11:00** Meza Nagusia. **Ondotik** herriko dantzari Arantzako Dantza dantzatuko dute. **18:00** Wiia gazteentzat Ekaitza Elkartearen. **19:00** Kalejira buruhandi eta erraldoekin. **19:00** Pilota partidak: 1. partida: Olatz Arrizabalaga eta Leire Etxaniz, Nagore Arozena eta Maider Mendizabalen kontra. 2. partida: Mikel Olazabal eta Ion Gorriti, Ion Alberdi eta Ion Olaizolaren kontra. **20:00-21:30** Dantzaldia Bide Batez taldearekin. **21:30** Zezensuzkoa. **00:00** Dantzaldia Bide Batez taldearekin.



## ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA

**10:00** Diana herriko musikariek. **11:00** Haurren herri lasterketa. (Izen-ematea: ordu erdi lehenago. **12:00** Kantu poteoa eta luntxa plazan. **16:00-19:00** Puzgarriak frontoian. **17:00-18:00** Gaztetxoaren musika eta dantza saioa. **18:00** Bertso saioa plazan: Herriko bertsolari gaztetxoak eta ondotik, Amaia Agirre, Miren Amuriza, Beñat Lizaso eta Sustrai Colinarekin. Gai-jartzailea: Patxi Larretxea. **20:00-21:30** Dantzaldia Trikidantz taldearekin. **22:00** Auzoetako afariak. **00:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.



## ABUZTUAK 17, ORTZEGUNA

**10:00** Diana herriko musikariek. **10:30** Herriko pilota txapelketako finalak, Ekaitza Elkarteak antolatuta. **18:00** Ginkana haurrentzako. **18:00** Herri kirolak: Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa eta Inaxio Perurenaren harri-jasotze erakustaldia. **20:00-21:30** Dantzaldia Fan&GO taldearekin. **21:00** Elkartasun afaria Ekaitzan. **00:00** Dantzaldia Fan&GO taldearekin.

## ABUZTUAK 19, LARUNBATA

**13:00** Aperitifa. **14:00** Bazkaria. **Bazkalondotik** ginkana. **Ilunbarrean** poteoa Elektrotxarangarekin. **22:30** Kontzertuak: Estu&Larri, Liher, Bad Sound Sistem, Trikiño eta DJ Jotatxo.





## Gabi GOIA IPARRAGIRRE Arantzako emakumea

«Harro sentitu izan  
naiz aranztarrok  
gure dantza eta  
janzkera dugulako»

«Arantzan jaio eta bertan bizi naizen 57 urteko emakumea» da Gabi. «Gauza aunitzekin» gozaten duena: «hor barrena ibiltzen, mendian, edozein toki berri ezagutzen, loreekin, baratzean...». Orain, bertze afizio bat ere berreskuratu omen du: «nire leitzeko afizioa eta liburujaie bihurtu naiz». Zaletasun aunitz ditu, ez baitzen geldirik egoteko jaio. Orain 37 urte dituen Ekaitza Elkartearen sorreran ere ibili zen: «garai hartan, Arantzan ideiak garbi zituzten gazte batzuk zeuden eta eurei segika talde indartsu eta langilea elkartu eta hainbat proiektu, ekitaldi eta kultur ekintza gauzatu genituen». Baina aitortu digunez, «denborak eta adinak ematen didan ikuspegiarekin, ez dut dena polita ikusten. Gazteak ginelako edo, herria, gizartea, dena aldatu nahian, borroka egin beharra sentitzen genuen eta horrek bere ondorioak utzi zituen».

### DANTZA LUZEA BERRESKURATUZ

Garai mugitu hartako bertze ondorioetako bat Arantzako Dantza Luzea berreskuratzea izan zen. Tartean zen Gabi ere: «orain 40 urte inguru izanen zen. Orduan herriko txistulari eta atabalariak ziren Jazinto eta Cruz Mari Bergara aritu ziren herriko nerabe talde bati erakusten. Soinuarekin Martin Ibarrola, Evaristo Mitxelena eta Alfonso Larralde laguntzen ziguten. Neska-mutil haien artean ni eta nire lagunak geunden.

Gero, guk gure ondorengoei erakutsi diegu». Bere fruituak eman ditu lan hark, eta gaur egun, bestetako egun handian, herritar saila biltzen da Dantza Luzea dantzatzera. Gabik berak ere urte aunitzez «gustura» dantzatu izan du eta ez du baztertua beriz dantzatzeko aukera: «polita iruditzen zait haur, gazte eta zahar, denak elkarrekin Dantza Luzean aritzea». Gehiago ere kontatu digu: «gaztetan harro sentitzen nintzen aranztarrok gure dantza eta janzkera propioa genuelako, eta bertze herrietatik gure dantza ikastera etortzen zirelako». Bertalde, «ahalik eta hobekiena dantzatu eta ohitura zahar hau mantentzeko ardura ere» sentitu omen du, baita momentu bereziak ere: «orain urte batzuk, nire hiru seme-alabekin dantzatu nuen Amabirjin egunean eta hunkigarria izandu zen».

Gainera, hori du bestetako egunik maiteena: «ilunabarrean plaza inguruan sortzen den giroa gustuko dut. Herritarrak eta herritik joandako bertako seme-alabak egun hone-tan herrira itzultzen dira familiarekin eta belaunaldi ezberdinak elkartuz giro aparta plantatzen da». Haurra zenetik bestak aldatu direla iruditu arren, lehen eta orain, gustuko ditu eta ez du hutsik eginen aurten ere. Akaso armairuan ongi gordea izanen duen jantzi zuri-gorria atera eta plazan agertuko da Dantza Luzea dantzatzera. Aurten ez bada, hurrengoren batean, bai.

I.M.  
**RRIXKO**  
IGELTSEKITZA  
IGELTSEKITZA ETA ZURGIN LANAK  
661 735 052  
ARANTZA  
ESTRUKTURAK · TEILATUAK · FATXADAK · ZAHAR BERRITZE LANAK

GORA AMABIRJINAK!  
**borzrud**  
INPRENTA - HOPISTEGIA  
948 631 521  
material guztietan inprimatzen dugu  
kamisetak / oparitzeko artikulua

Martiko  
Pol Zalaia, s/n.  
31780 Bera. Nafarroa  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036  
www.martiko.com  
Abasteletan adituak eta arituak

**DENDA ORDUTEGIA:**  
astelehenetik  
ortziralera  
08:00etatik  
17:00etara

Zurgin lanak  
orokorrean

**Luis Ibarra**  
636 701 204

690 388 263  
luisibarra86@hotmail.es  
Salbatore karrika, 28 · ARANTZA

Armairuak  
Leihoak  
Ateak  
Teilatu berriak  
Parke flotantea  
Tarima  
Teilatu zaharberritzeak  
ongi pasa  
bestak



ARANTZAKO UDALAK BESTA ONAK OPA DIZKIZUE ARANZTAR ETA BISITARI GUZTIEI

# ETXALAR<sub>KO</sub> BESTAK

ABUZTUAREN 14TIK 18RA

## ABUZTUAK 14, ASTELEHENA



**17:00** III. Lasterketa herrikoirako izen-ematea. **17:30** Haurren lasterketa eta helduen izen-ematea. **18:00** Helduen lasterketa. **Ondotik** bertako produktuekin berendua. **19:45** Agerraldi xila Euskal Presoak Euskal Herrirat. **20:00** Altxaferoa, txistulariak, trikitilariak, Elutxa txaranga, buruhandiak eta kankailuak. Txanpaina, goxoki eta globoak banatuko dira. **21:30** Herri afaria txarangak alaituta. **00:30-04:00** Dantzaldia Zesuma taldearekin.

## ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

**10:30** Argi-soinuak gaiteroekin, buruhaundi eta kankailuekin. **11:30** Meza nagusia. **12:30** Herriko dantzarien saioa txistulari eta musikariekin. **Ondotik**, Eskola Zaharreko estalpean hamaiketako dantzari eta musikarientzat. **18:00** Herri Kirolak. Nafarroako Herriz Herri Txapelketako III. jardunaldia. Proba konbinatuak: Berriozar, Artzanezi, Basaburua eta Menditarak. **19:30-21:00** Saltoka, Euskal Musika eta dantza tradizionala. **00:00-03:00** Dantzaldia Ezten giro taldearekin.

## ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA



**10:30** Argi-soinuak herriko trikitilarien eskutik, buruhaundi eta kankailuekin. **11:00-13:00 eta 15:00-18:00** Haurrendako Joku Parkea, txu-txu trenea, puzgarri eta joku tradizionalak. **13:30** Asauttiki Landa-gain Guraso Elkarteak antolatua. **16:30-18:30** Eskalada haur eta helduentzat. **18:30** Dantza emanaldia Rebeca Aranzadiren eskutik. **20:00** Chuchin Ibañez eta mariatxiak. **00:00-03:30** DJ Txingudi.

## ABUZTUAK 17, ORTZEGUNA

**10:30** Argi-soinuak herriko txistulari, buruhaundi eta kankailuekin. **11:30** Herriko umeen XXXI. pilota txapelketako finalak. **12:00** Aitor Danboriena Memoria VI Pilota Txapelketako finala. **13:00** Pilotako sari-banaketa. **17:00** XXV. Mus txapelketa. Izen-ematea 16:30etik aitzinera. **18:00** Herriko trikitilarien saioa. **Ondotik** trikitilariarentzat berendua. **19:30** Museko sari banaketa. **19:00-20:00** Bertsolariak: Julen Zelaieta eta Miren Amuriza. **20:00-22:00 eta 00:00-03:00** Oharkaberekin dantzaldia.



## ABUZTUAK 18, ORTZIRALA

**10:30** Argi-soinuak Elutxa txarangaren eskutik, buruhaundi eta kankailuekin. **12:00** Dantzak lerroan. **14:00** Jubilatuen bazkaria. **14:00** Asaua ermitako zelaian, Elutxa txarangak girotuta. **20:00-22:00** Elektropatxaranga. **00:00-03:00** Dantzaldia Gozo gozo taldearekin.

**ELUTSA**  
O S T A T U A

TABAKOAK

**BESTA ONAK  
PASA ITZAZUE!**

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

**IRIBARREN**

Fabrikazioa, salmenta, instalazioa

Energia aurrezteko leihorik egokiena!  
Passivhaus-Etxeentzako leihoak



**BESTA ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU !!**

Antsolokueta, 28  
31760 ETXALAR  
T./F. 948 635 071  
info@ventanasiribarren.com

**haritzpe**  
Etxalarko okindegia

ONGI PASA BESTAK!

Goikolanda, 8  
31760 ETXALAR  
T. 618 778 328




**ETXALARKO**  
Herriko  
Ostatua-Jatetxea

Eguneko menua, Asteburukoa,  
Bokatak, Pintxoak...

**Terraza eta giro ederra!**

ONGI PASA BESTAK!

Andutzeta, 15 | ETXALAR | T. 948 635 465



**ARROSAMENA**  
ZURGINDEGIA

**ONGI  
PASA  
BESTAK!**

948 635 144  
680 260 872  
ETXALAR



## Leire OLAGARAI

Etxalarko zinegotzia

«Herritar gehiago animatuko nituzke bestetako bileretan parte hartzera»

«Etxalar aunitz maite duen etxalartarra». Horixe erranez aurkeztu digu bere burua Leire Olagarai Goienetxe gazteak. Eta horrekin batera, «naturaz, familiaz eta lagunez gozatzea» atsegin duela ere aitortu digu. Baina hainbertze maite duen herriaren alde lana egitea ere tokatzen zaio, bertzeak bertze, Herriko Etxeko zinegotzia delako. Onartu digunez, ardura haundia da zinegotziarena: «denbora aunitz eskatzen du. Ahal den hobekien egiten saiatzen gara».

### URTERO BERRIKUNTZAREN BAT EGITARAUAN

Abuztuan sartuta, herriko bestak ditu orain buruan. Eta ez preseski parranda duelako buruan. Kultur zinegotzia izanda, bestak antolatzeko ardura duen batzordeko kideetako bat delako baizik: «ardura haundia da. Bestetan egun osoa telefonoari begira pasatzen dut badaezpada ere, eta jendea ea gauzak gustatu zaizkien eta zertan hobe daitezkeen galdezka».

Urtarrilaz geroztik aritu dira besten antolakuntzan, eta dagoeneko «dena prest dugu. Bestak hasteko gogoarekin gaude», adierazi digu umoretsu. Hasi bai, baina bukatu ere...: «bestak ilusioz eta gogoz hasten ditut, baina baita bukatu ere», aitortu digu etxalartarrak.

20.000-21.000 euroko aurrekontua dute bestak antolatzeko, eta hortik zati haundiena Udalak ordaintzen duela azaldu digu Leirek. Hala ere, gaineratu digunez, «herriko elkarte eta taldeek ere ekintza dezente antolatzen dituzte beraien kontura: Etxalarko gazteak, Guraso Elkartea, dantza taldea, txistulariak, triki-

tilariak...». Hainbat boluntariok egiten duten lana ere nabarmendu nahi izan du. Eta horrela izan da aurten ere. Alde bateko eta bertzekoen elkarlanari esker, «jende guztiaren gustuko gauzak ekartzen saiatu» direla aipatu digu Olagarai, «arrakasta duten ekintzak kendu gabe». Sosa omen da muga, baina hala ere, urtero zerbait berria ekartzeko ahalegina egiten dute: «aurten, Etxalarko eta bertze herrietako emakume talde batek dantza saioa eskainiko digute abuztuaren 18ko eguerdian». Horrez gain, aurten ere ez dute hutsik eginen Leireren irudiko, «aipagarrienak eta jendetsuenak diren bestetako ekitaldiek: bezperako herri afaria eta azken eguneko asaua». Hori da, gainera, berari gehien gustatzen zaiona: «Asau Eguna».

«Jendearen gustuko gauzak ekartzen saiatu gara bestetan, arrakasta duten ekintzak kendu gabe. Diruak jartzen dizkigu mugak».

### PARTE HARTZEKO DEIA

Garbi dio Leirek: «denen gustua egitea ezinezkoa da, baina ahalik eta gehien denok disfrutatzea nahi izaten dugu». Horregatik egin die herritarrei parte hartzeko deia: «nahiz eta dagoeneko jende aunitzek lagundu eta ideia berriak bota, bestak denontzat direnez, herritar gehiago animatuko nituzke bileretara eta antolakuntzari laguntzera, horrela, denon gustuko bestak ospatzeko».



**ETXALARKO UDALAK**

BESTA ONAK OPA DIZKIZUE  
ETXALARTAR ETA BISITARI GUZTIEI

**PLAZAKO**  
denda  
ongi pasa bestak!  
ETXALAR • 948 635 026

**BEGOÑA TAXIA**  
ETXALAR  
24 orduko zerbitzua.  
Ekitaldi, alardu, sagardategi...  
joan eta etorria kontratatuz prezio berezia  
**ONGI PASA BESTAK**  
T. 674 644 812

**bai** euskarari  
zerbitzua euskaraz  
**HERRIKO OKINDEGIA**  
Ogi naturalak, ama oreaz eginak:  
Espelta | Garia | Zekalea  
Egunero irekia: 06:00 > 13:00 • T. 627 033 975 • ETXALAR



**ONGI PASA BESTAK!**

- 40 logela erabat osatuak (komuna eta TBrekin)
- Ostata: Karta, eguneko menua eta plater konbinatuak | Jangela pribatua
- 300 lagunendako bankete-jangela
- 200 ibilgailuentzako parking pribatua
- AZKUA erabilera anitzeko gela: kontzertuak emateko, ezkontzetako dantzaleku, konferentziak emateko... mota guztietako ekitaldiak



N-121-A • ETXALAR • T. 948 635 000 • F. 948 635 263  
www.etxalar.com | info@etxalar.com

**BENI**  
arraindegia

**ENKARGUAK HARTZEN DITUGU!**

Nagusia, 17 · T. 948 450 589  
31740 DONEZTEBE




*ongi pasa bestak!*

**SASOI**  
eraikuntzak s.l.

Leku-eder, 5 31791 SUNBILLA  
T. 948 451 596 F. 948 456 168  
info@sasoi.es

**ONGI PASA BESTAK**

**txokoberri**  
ERAIKUNTZAK

Igeltseritza lanak orokorrean  
**ONGI PASA BESTAK!**

DONAMARIA | 609 987 551 | 676 394 225



**F. LANCHAS**

Akutziladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea  
jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781



Ongi pasa bestak!

**TXARUTA, S.L.**

Iturgintza | kalefakzioa | Gasa

**BIOMASA INSTALAZIOAK**  
KOMUNAK | SUKALDEAK  
BEROKUNTZAKO INSTALAZIOAK  
EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOAK  
AEROTERMIA  
PELLET | EGURRA | GASOLIOA | GASA

31750 - GAZTELU - DONAMARIA NAFARROA  
T. 948 451 728 M. 659 770 015 M. 659 234 825  
@ txarutasl@yahoo.es



Donamaria - Gazteluko Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue  
herritar eta bisitari guztiei



# DONAMARIAKO BESTAK

ABUZTUAREN 14TIK 18RA



## ABUZTUAK 14, ASTELEHENA

**17:30** Herri kirolak. Lehendabiziko haurrak eta ondoren gazteak. **20:00** Txupinazoa eta kalejira herriko trikitilari eta buruhaundiekin. **00:00** Dj Julen.

## ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

**09:30** Diana gaiteroekin. **10:00-13:00** Tren ibiltaria auzoz-auzo. **11:00** Meza. **12:00** Haurren dantza saioa. **13:00** Luntxa. **16:00-18:00** Tren ibiltaria auzoz auzo. **17:00** Haurren pilota partida. **18:00** Pilota partida: Mikel Goñi eta Sarasa, Ugaitz Elizalde eta Azpitarteren aurka. Pilotariei harrera herriko trikitilariekin egingo zaie. **20:00-22:00** Oihana eta Oihana Aurtizko trikitilariak.

## ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA

**13:00** Aizkora apostua: Mieltxo Mindegia eta Jon Rekondo, Donato Larretxea eta Julen Kañamare-sen aurka. Herriko trikitilariak girotua. **14:00** Paella bazkari autogestionatua. **18:00** Tira goiti bulka beheiti. **21:30** Gazte afaria. **Arratsaldez eta gaez** Gabenara.



## ABUZTUAK 17, ORTZEGUNA

**11:00-13:00** Puzgarriak. **15:30-18:30** Puzgarriak. **17:30** Mus txapelketa herrikoia. Bikote bakoitzeko kide bat guttinez herritarra izan behar da. **18:30** Txokolate jana. **19:00** Patata tortilla eta postre leihaketaren hasiera. **20:30** Prestatutako patata tortilla eta postreen aurkezpena. **21:00** Afaria frontoian. **Arratsaldez eta gaez** dantzaldia Bixenterekin.



## ABUZTUAK 18, ORTZIRALEA

**14:00** Herri bazkaria Oihana Iguaran eta Oihana Bartra bertsolariekin. Txartelak Herriko Ostatuan salgai, abuztuaren 16ra arte 30 eurotan eta hortik aitzinera 35 eurotan. **Segidan** komentura bisita Oihana eta Oihana Aurtizko trikitilariekin. **Arratsaldez eta gaez** Trikidantz taldearekin dantzaldia.

# ORNOZ-MUGAIRIko BESTAK

ABUZTUAREN 11tik 15ERA

ttipi-ttapa | 692 zk.  
2017.08.10

13



## ABUZTUAK 11, ORTZIRALEA

**18:00** Bestei hasiera emateko txupinazoa eta ezkil jotzea. **Ondotik**, kalejira Mendaur triki-pandero eskolaren eskutik. **19:00** Gaiteroak eta erraldoiak. **21:30** Baztan zopak. **00:30** Soundfesta dj.



## ABUZTUAK 12, LARUNBATA

**10:00** Dianak. **11:00** Jokulandia haurrentzako, goiz guztian zehar. **14:00** Umetxoek bazkaria. **16:00** Jokulandia arratsalde guztian zehar. **16:00** Mus txapelketa herriko elkarteak. **17:00** Haurrentzako merendua. **20:00** Dantzaldia hauspolarien eskutik. **21:30** Kuadrillen afaria plazan. **00:00** Dantzaldia Hauspolariet taldearen eskutik.

## ABUZTUAK 13, IGANDEA

**10:00** Aurorak. **12:00** Herri kirolak. **14:00** Herri bazkaria. **17:00** Dantzaldia Franxiko Santxotenaren eskutik. **21:00** Txorizo eta tortilla dastaketa. **00:00** Dantzaldia Franxiko Santxotenaren eskutik.



## ABUZTUAK 14, ASTELEHENA

**10:00** Dianak. **11:30** Partxis txapelketa. **14:00** Gazte bazkaria. **17:00** Herriari buelta txarangarekin. **20:00** Mozorro besta eta dantzaldia Franxikoren eskutik. **21:30** Patata tortilla lehiaketa. **00:00** Dantzaldia Dj Paliren eskutik.

## ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

**10:00** Baztango gaiteroak. **11:00** Meza nagusia. **12:00** Herriko haur eta gazteen eskutik dantza emanaldia. **14:00** Familia bazkariak. **18:00** Pala finalak. **20:00** Cazahuates mariatxiak besteei bukaera emateko.

**Miren Gortari Sein  
ILEAPAINDEGIA**

**ONGI PASA BESTAK!!**

Martin Urrutia • ORNOZ-MUGAIRI • T. 948 59 23 10

**OSKORRI**  
denda

Besta zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

Martin Urrutia • ORNOZ-MUGAIRI • 644 958 655

**ERREKA-ALDE**  
zurgindegia

Zurgin lanak orokorrean  
Teilatuak • Sukaldeak • Armairu enpotratuak

Tfnoa: 948 592 070 • ORNOZ-MUGAIRI

**ZUMARBEL**  
creaciones metálicas  
Igantzi (Navarra)  
948 63 74 11

**Lehen A.T.M. S.A**  
Berrizaun 25,  
31790 IGANTZI  
T. 948 63 74 11  
@zumarbeld@hotmail.com  
www.zumarbeld.es

**JOSENEA**  
EREMUA AUTO

Gasolindegia  
Mekanika azkarra  
Gurpilak  
Olio aldaketak

T. 948 599 090 • 948 599 236  
N-121-B errepidea • ORNOZ-MUGAIRI  
centreauto@josenea.es



Asteburuan menu berezia eta karta  
Amabirgina egunean menu bakarra:  
Sarrerak | Bigarren platera aukeran  
Postreak | Edariak eta kafea

36€

Animatu!



ORNOZ-MUGAIRI

948 592 063 - reservas@hotelurgain.com - www.hotelurgain.com

# GOIZUETAKO FIESTAK

ABUZTUAREN 13TIK 18RA

**ONGI IGARO FESTAK!**



**ZABALA eta GOIKOETXEA  
ERAIKUNTZAK**

Gure Ametsa GOIZUETA  
T/F: 948 51 42 28 M. 679 47 98 93 · 679 47 98 78

**Oxeguarda  
ostatua**



Ongi pasa festak!

T. 948 514 019 · Nagusia, 34 · GOIZUETA

**MAI**

OKINDEGIA - GOZOTEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

K. NAGUSIA · GOIZUETA · 948 514 242

**iskibi kanpina**  
GOIZUETA



Tel. 0034-948514277  
Leitza-Hernani NA-4150, km 18  
31754 GOIZUETA (NAFARROA)  
...ta giro atsegina

[www.iskibi.com](http://www.iskibi.com)  
[campingiskibi@gmail.com](mailto:campingiskibi@gmail.com)

**IZKIÑA  
jatetxea**



etorri Goizuetako  
fauna ezagutzera!!!

Pintxoak, bokatak  
bazkariak, afariak,  
eguneko menua



Tel. 948 514 102 · GOIZUETA




Goizuetako Udalak  
festa onak  
opa dizkizue  
goizuetar eta  
bisitari guztiei



## ABUZTUAK 13, IGANDEA

**08:00** Aurorok Umore Ona abesbatzaren eskutik. **09:00** Irumaita txaranga herrian zehar. **11:00** Meza, haurrak bertako jantziekin doazela. **12:30** Pilota partidak herriko pilota eskolako hurrekin. **14:00** Umeen bazkaria Ikastolan. **16:30** Lasturren eskutik, Xexenak eta poniak plazan. **Ondoren** Haurrentzako berendua Guraso Elkartearen eskutik. **18:30** Apar festa plazan. **19:30** Plaza irrintzika. **20:30** Goittikiren aldeko bingoa Ikastolan.

## ABUZTUAK 14, ASTELEHENA



**11:00** Goizueta Chef plazan. **12:00** Txupinazoa. **Ondoren** Erraldoi eta buruhaundiak Igandea txarangarekin. Txoznen irekiera. **14:30** Gazte bazkaria Ikastolan. **Ondoren** Musik Challenge. **18:00** Gazte desapiyua. **19:30** Umore Ona peñaren irteera Ikastolatik txarangarekin. **20:00** Gazte txupinazoa Gaztetxean. **20:30** Goittikiren aldeko bingoa Ikastolan. **23:00** Kontzertuak Gaztetxean: Kallera eta Zakill. **23:00** Laiotz taldearekin dantzaldia plazan. **Ondoren** Igandea txaranga.

## ABUZTUAK 15, ASTEARTEA



**07:30** Diana dultzaineroekin. **08:00** Entzierroa Lasturko zezenekin. **10:30** Meza nagusia eta ohiko prozesioa. **12:00** Erraldoiak eta buruhaundiak. **12:00** Pilota partidak. **13:30** Igandea txaranga. **18:30** Bertso saioa: Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Eneko Lazkoz eta Iker Zubeldiarekin. **Ondoren** Igandea txaranga. **20:30** Goittikiren aldeko bingoa Ikastolan. **21:30** Dj Mikeltxirekin dantzaldia Ikastolan. **21:45** Herri afaria Umore Ona elkartearen. **00:30** Kallejira. **Ondoren** Igandea txaranga.

**ANSA**  
JANARI-DENDA

**ONGI PASA FESTAK!**

948 514 054  
GOIZUETA




**XIMON**  
harategia

Festa onak igaro

GOIZUETA  
948 514 056

ABELZAINZA  
EKO-LOJIKOA

**DOMIÑA**



**FESTA ONAK IGARO**

GOIZUETA NAFARROA  
699 975 403  
[arditurri@hotmail.com](mailto:arditurri@hotmail.com)



## ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA

**11:00-14:00** Haurrentzako puzgarriak eskolan. **11:30** Toka txapelketa heldu eta haurrentzat. **12:00** Nafarroako eta Gipuzkoako sagardogile onenen parte hartzearekin sagardo probaketa plazan. **13:00** Igandea txaranga. **16:00-18:00** Haurrentzako puzgarriak eskolan. **18:30** Zezenak Lasturren eskutik. **Ondoren**, Igandea Txaranga kaleetan barrena. **20:30** Goittikiren aldeko bingo Ikastolan. **00:00** México en el Corazón dantzaldia. **Ondoren**, Igandea txaranga.

## ABUZTUAK 17, OSTEGUNA

**11:00** Erraldoiak eta buruhaundiak. **12:00** Bakailao lehiaketa plazan. **13:00** Bakailao lehiaketaren sari-banaketa. **13:30** Igandea txaranga kaleetan zehar. **17:00** XIV. Mus txapelketa Ikxibi kanpinuean. **18:30** Umore-Ona dantza taldea eta Ortzadar fanfarreakin plaza dantzak plazan. **Ondoren**, Igandea txaranga. **20:30** Goittikiren aldeko bingo Ikastolan. **21:30** Mugi zaitetz disko festa Ikastolan.



## ABUZTUAK 18, OSTIRALA

